

KRITIKA


Norbere lurrean arrotz

Irati Majuelo

Ahmadou Kourouma malinkeak 1960ko hamarkadaren amaieran argitaratu zuen *Independenzien eguzkiak*. Zalaparta ugari sortu zuen eleberria honek sorreran, izan ere, Afrikako zenbait herrialdeetan lortutako independentzia berriak auzitan jartzen baitzitu, europarren kolonizazio luzeak haren ondorenean er

utzitako arrasto sakona argitara ekarri. Orain, Literatura Unibertsala bildumaren bidez irakur dezakegu. Aiora Jakak izan du euskaratzeko ardura, eta ez txikia, hizkuntzaren auziak bai baitu zeresanik lan honetan.

Kolonizaturiko inguruetan bizi izan diren idazleen kasuetan, ohikoa da kolonizatzaileak ezarritako hizkuntzan sortzea, haren bidez eskolatu diren heinean. Hala da honako honetan ere,



AHMADOU KOUROUMA
Independenzien eguzkiak

'INDEPENDENZIEN EGUZKIAK'

Egilea: Ahmadou Kourouma.

Itzultzailea: Aiora Jaka.

Argitaletxea: Erein-Igela.

alabaina, idazleak etxeko ez duen hizkuntza hori arrotz-teko saiakera egiten du. Hau da, malinkeraz pentsatutako testua frantsesez idatzita dago, Kouroumak argitu modura. «Nire pentsamendua adierazteko zurrunezia zitzaidan hizkuntza klasiko bat itxuraldatuz». Kolonizatzailearen hizkuntza bihurtu, apurtu, desnaturalizatzen du, beraz, ahozko tradizio afrikarrera hurbiltzeko. Itzulpenak bigarren filtro

batetik iragaten du malinkerazko sintaxia, erritmoa eta mundua izendatzeko manera. Ageriko zailtasunak aipatzen ditu itzultzaileak hitzaurrean, eta egon badaude. Hala ere, Jakak asmatzen duelakoan nago.

Norbere lurrean arrotz sentitzearen paradoxa azaltzen du muinean Kouroumaren lehen eleberriak. Fama du protagonista nagusia, Horoduguko printzea, Doumbouya tribu boteretsuko azken buruzagia. Independentzien eguzkiekin, kolonizazio osteko garaia hastearekin bat, ordea, gain behera etorritako dinastia ordezkaten du Famak. Hirian bizi da Salimata emaztearekin, miseriatik geratu. Antzutasuna pairatzen du bikoteak, eta ondorengorik sortu ezinak frustraziora eta obsesiora kondentzen ditu, Famaren gainbehera leinua. Finean, Fama postkolonizazioaren testuinguru berri eta konplexuan bere lekua

aurkitu ezinik bizi den gizona da, eta jendeak oraindik ere begirunea dion arren, hein handi batean galdu den mundu baten parte dela geratzen da agerian.

Independentziak ekarri behar zituen garapen promesak ez dira bete, antzinako tradizioak ez dira jada lehen zirena; zer da afrikarrei geratzen zaiena? Iraganeko kolonizazioaren minak ahaztu gabe zein independentziek sortutako itxaropena erromantizatu gabe idatzitako istorioa da hau. Kouroumak ironia handiz kontaktzen ditu bere herrialdean eraldaketa politikoei eragindako kultura eta pentsamolde talkak, herritar askoren nahasmen sentsazioa. Alabaina, bizipen mingarri eta traumatikoak azaltzen badira ere, komikotasunak gailen egiten du malinkearraren idazkeran, bere herriak bizitako krisi sozial, kultural eta politikoa parodiara eramanez. ●